



Espediente zk./Nº expediente: 2024SDBD0029

Gaia/Asunto: 6.4 DIRULAGUNTZA LERROA: HERRIKO JAIK MADALENAK 2025 - LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.4: FIESTAS PATRONALES DE MADALENAS 2025

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

ERANSKINA: 6.4. DIRULAGUNTZA LERROA: HERRIKO JAIK (MADALENAK) – 2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

ANEXO: LÍNEA DE SUBVENCIÓN 6.4.: FIESTAS PATRONALES (MADALENAS) – 2025. BASES ESPECÍFICAS.

1- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko pertsonen, elkarteek edo irabazi-asmorik ez duten bestelako entitateek antolatutako kultur jardueretako programak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorriko beharko dute 2025eko herriko jaiak direla-eta kultur jardueretako programak kofinantatzeko helburuarekin.

2.-Dirulaguntza zein partidaren kargura egingo den eta guztirako gehieneko kopurua.

Herriko Jaietako jarduerak kofinantatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2025eko honako partidaren kargura izango da:

1 0830.481.01.338.00 : Dirulaguntzak Madalenak

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 95.000,00 eurokoa da. Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke

1- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades culturales en Errenteria, organizadas y llevadas a cabo por particulares, asociaciones u otras entidades sin ánimo de lucro radicadas en el municipio, con motivo de las fiestas patronales del año 2025.

2- Partida presupuestaria a la que se imputa la subvención y cuantía total máxima de la misma.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas vinculados a las fiestas patronales irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2025:

1 0830.481.01.338.00: Subvenciones Madalenas

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 95.000,00.- euros. Si mediante la correspondiente modificación de crédito se incrementara la cantidad, se podrá proceder a una nueva autorización del gasto imputable a esta convocatoria.



3.- Pertsona edo entitate onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete Errenterian 2025eko herriko jaietan kultura intereseko jarduerak gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko Pertsona fisikoek edo entitate juridikoek.

Irabazi-asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarteak lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, Errenteriako Udalak 2025. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek:

- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

Proiektuaren xehetasunak edo interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio edota dokumentazioa (aukeran)

- Eskatera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak. Baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

Errenteriako Udalak , NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko

3.- Personas o entidades beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Con carácter general podrán optar a las subvenciones cuantas personas físicas o entidades jurídicas sin ánimo de lucro radicadas en Errenteria que realicen actividades de interés cultural que se desarrollen durante las fiestas patronales del año 2025.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025, la siguiente documentación:

- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

- Detalle del proyecto o cualquier otra información o documentación que considere de interés (opcional)

- Estatutos de la asociación o entidad solicitante. Si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los



datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea martxoaren 10an irekiko da eta apirilaren 27an amaituko da.

5.- Balorazio batzordea

Dirulaguntza lerro honetako Balorazio batzordean, Oinarri Orokorretako Zortzigarren oinarrian zehaztutako pertsonen gain, Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzak eta Giza Eskubide azpisailaren Teknikaria ere kide izango da.

6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak

sigüientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.
- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social
- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención estará abierto desde el día 10 de marzo y finalizará el 27 de abril.

5.- Comisión de Valoración

La Comisión de valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la Base Octava de las Bases Generales, por la Técnico de la subárea de Diversidad cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos.

6.- Criterios de valoración de las solicitudes.

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se



lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, aurrerago adieraziko den mugarekin.

multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite que más adelante se indica.

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA	Gehienez 40 máximo	PARTICIPACIÓN Y COLABORACIÓN
Jarduera elkarte batek baino gehiagok antolatzea	5 puntu	La actividad está organizada por más de una asociación.
Herritarrek unean parte hartzeko duten aukera.	5 puntu	La posibilidad que la ciudadanía participe en el momento.
Prestaketa lanak ere parte-hartzaileak dira.	5 puntu	Las labores preparatorias del acto son también participativas.
Ekintzen antolaketa-izaera: auzolan izaera	10 puntu	Carácter organizativo: trabajo voluntariado.
Jai Batzordean Parte-hartze aktiboa	15 puntu	Participación activa en la Comisión de Fiestas
SAILAK EZARRITAKO HELBURUEI EKARPENAK	Gehienez 30 máximo	APORTACIONES A LOS OBJETIVOS MARCADOS POR EL DEPARTAMENTO
Emakume eta gizonak modu parekidean parte hartzen dute bai antolakuntzan eta bai ekintza gauzatu eta disfrutatzen	10 puntu	Participan mujeres y hombres de forma paritaria tanto en la organización como en la realización y disfrute de la actividad
Euskaraz egiten den ekimena da.	10 puntu	La actividad es en Euskara.
Kulturartekotasuna lantzen da	10 puntu	Se trabaja la interculturalidad.
EKIMENARI DAGOKIONA	Gehienez 30 máximo	PUNTUACIÓN A LA INICIATIVA
Ekimen berria da	10 puntu	Es una iniciativa nueva.
Urte askotan egindako ekimena da, baina berrikuntzak sartu dira	10 puntu	Es una iniciativa que lleva tiempo, pero hay innovación.
Madalenetarako egitarau osoa antolatzen du, ez da ekimen bakar bat.	10 puntu	Es una programación para todas las Madalenas, no es una actividad puntual.



DIRULAGUNTZAREN DOIKETA

AJUSTE SUBVENCIÓN

a) Inoiz ez da eskatutako zenbatekoaren %80-a baino gehiago emango.

a) En ningún caso se otorgará más del 80% del importe solicitado.

b) Dirulaguntza jasotzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

b) El mínimo de puntos para obtener subvención será de 20.

c) Gutxienez eskatutako zenbatekoaren %30-eko dirulaguntza emango da.

c) El mínimo que se concederá será del 30% del importe solicitado.

d) Ezarritako irizpideak aplikatu ondoren, erakunde eskatzaileei ez bazaie aurrekontu erabilgarri osoa esleitu dirulaguntzak hainbanaketaren bidez birkalkulatu ahal izango dira, teknikari arduradunak horrela proposatzen badu, partida agortu arte, eskatutako dirulaguntza osoa lortu ez duten erakunde onuradunen artean.

d) Si, una vez aplicados los criterios establecidos en las bases específicas, no se hubiera asignado a las entidades solicitantes el total del presupuesto disponible, se podrá, a propuesta de la/el técnica/o responsable, recalcularse las subvenciones, mediante prorrateo, hasta el agotamiento de la partida, entre las entidades beneficiarias que no hubieran obtenido el total de la subvención solicitada.

7.- Dirulaguntza ordaintzea.

7.- Abono de la subvención.

Dirulaguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

% 80 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

80 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

% 20 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

20 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

8.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

8.- Justificación de la subvención.

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 30 de septiembre de 2025.



izango da: 2025ko irailaren 30.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain: En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da. **Nota importante:** esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.